alcalde y eso tampoco es así. A ti también se te ha convocado a varias reuniones y no has acurdido como a la reunión del consorcio Urrobi, o a la de la Agenda 21 anterior o la de pastos. Es verdad que temas pendiente pero consider que el Ayuntamiento lo lleva bastante bien.

A lo que la concejala Sra. Remiro, responde, comentando que no ha dicho que el alcalde esté llevando el Ayuntamiento mal ni que esté mirando, sólo ha preguntado cuál es la razón de que no se resuelvan en tiempo y forma los temas pendientes que llevan tanto tiempo pendientes.

Toma la palabra la concejala Sra. Nuño, que insiste en el compromiso de que en el año 2022, se celebren las sesiones en el tiempo establecido y si se hacen con la perioricidad acordada segurametne será más facil para todos.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión siendo las 22,00 h. del mismo día, de lo que doy *fe*.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2021eko abenduaren 13ko 19:00etan, Erroibarko Udala Bildu zen bilkura arrunta egiteko, lehen deialdian. Bertaratuak: José María Eciolaza Ochoa, Juan Luis Fermin Gil García, Teresa Bidaurreta Azkarate, Miren Nekane Nuño Iturri, Ainara Ekisoain Erro eta Leire Remiro Esnoz zinegotziak; bilkura buru, alkatea, Enrique Garrada Erro, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Eciolaza zinegotziak eta alkateak, Garralda, Covid dela eta, modu telematikoan parte hartu dute, telefono mugikorraren bidez.

Gai zerrendari ekin baino lehen, Haize Morea Taldeko zinegotziak, Remiro, EH-Bildu Taldeko zinegotziak, Nuño, eta ETI Taldeko zinegotziak, Gil, bilkura grabatuko dutela jakinarazi dute.

1.- 2021eko IRAILAREN 22AN ETA URRIAREN 4AN EGINDAKO BILKUREN AKTEN ONESPENA.

Irailaren 22ko bilkuraren akta aho batez onetsi da eta urriaren 4koa ere bai Remiro zinegotziaren abstentzioarekin.

2.- 2021eko IRAILAREN 21etik ABENDUAREN 9a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Garralda jk., 2021eko irailaren 21etik abenduaren 9a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du. Udalkideak jakitun dira.

Remiro zinegotziak ebazpen hauei buruzko informazioa eskatu du:

Antzemandako matxurei erreferentzia egiten dieten ur-kontagailuen ebazpenei dagokionez, galdetu du ea Udalari dagozkion matxurak diren edo partikularrenak diren, eta ea kasualitatea den denbora-tarte horretan hainbeste matxura egotea, berak orain arte ez baitu horrelakorik ikusi. Idazkariak erantzun du beti egon direla, joan den urtean ere matxura asko egon ziren, partikularrenak izan ohi dira eta agoazilak kontagailuak berrikusten dituenean ikusten dira eta orduan abisatzen zaie eta eskatzen zaie konponketa egin badute horren gastuak justifikatzea hurrengo errezibuak egitean kontuan hartzeko, eta konpontzen ez badira hurrengo errezibuetan kontsumoa altuegia izango baita, baino ez direla erregularizazio gehiago egingo abisatuak daudelako.

199/2021 zk. duen ebazpena, Aurizberriko lurzati baten xehetasun azterlanari buruzkoa, horretan aipatzen da 700 euroko tasa ordaindu behar dela eta deigarria egiten zaio; idazkariak erantzun du izapidetzen diren hirigintza dokumentuen tasak aurreko udal plana onartu zenean onetsitako ordenantzaz ezarri zirela. Tasa finkoa da planeamenduzko dokumentuaren arabera.

3.- BEHIN BETIKO ONESTEA 2020. URTEKO EKITALDIAREN KONTUEN ESPEDIENTEA.

Garralda alkateak jakinarazi du kontuan jendaurrean egon bitartean ez dela alegaziorik aurkeztu eta, hortaz, behin betiko onetsi behar direla.

Aho batez erabaki da 2020ko urtealdiko kontuak behin betiko onestea.

Remiro zinegotziak hitza hartu du eta esan du bere taldeak eskatzen diola alkateari 2022ko aurrekontuak lehen baino lehen prestatzea, eta, ahal balitz, 2022ko lehenengo hiruhilekoan onar daitezela eta eskatu nahi du aktan adieraztea hurrengo osoko bilkuran sartzea 2021eko udal aurrekontuetan izandako genero inpaktuaren gaineko txostena eskatzeko proposamena. Mozio hori ez da egungo osoko bilkuraren gai zerrendan sartu, beraien ustez oso baliagarria izango dena 2022ko aurrekontuak prestatzeko, eta haren kostua, 500€, Udalak bere gain har dezakeelako. Garralda alkateak dio hurrengo osoko bilkuran sartuko duela eta zinegotziak dio alkateak horretarako eskumenak duenez, lan hori egitea eskatu ahal duela hurrengo osoko bilkurara itxoin gabe, eta alkateak erantzun du ez duela orain erabakiko eta, esan bezala, hurrengo osoko bilkuran sartuko duela.

Nuño zinegotziak galdetu du mozioa bilkura honetarako aurkeztu den eta Remiro zinegotziak dio berak hiru mozio aurkeztu dituela baina ez direla sartu. Idazkariak jakinarazi du ostiralean aurkeztu direla eta ordurako gai zerrenda bazegoela hertsia.

4.- 2021eko PLANTILLA ORGANIKOA. HASIERAKO ONESPENA.

2021eko plantilla organikoari dagokionez, Ekisoain zinegotziak hartu du hitza, eta horri buruzko galdera batzuk dituela adierazi du. Garbitzaile lanpostuari dagokionez, galdetu

du ea hutsik dagoen, plaza betetzen zuen pertsonak uko egin diolako; idazkariak erantzun du ezetz, ez uko egin diolako, eskatutako eszedentziatik urtebete baino gehiago igaro delako baizik, eta, urtebete igaro ondoren, plaza horretarako eskubidea galdu egin duelako; hala ere, etorkizunean pertsona horrek udaletxera itzultzea eskatuko balu, bere maila bereko beste lanpostu huts bat dagoen unean, lehentasuna izango luke plaza hori betetzeko. Garbiketa-lanpostuari dagokionez, orain hutsik dago, eta bi modutara eskaini ahal da, bai plaza zuzenean finkora ateraz, bai lan horretarako izangaien zerrenda bat osatzeko deialdia onartuz, zerrenda horretatik kontratatuz joateko (zerrenda horrek oportetako edo bajetako ordezkapenetarako ere balioko luke, eta abar), eta, hiru urteren buruan, plaza ateratzea. Deialdi hori Agoizko Enplegu Bulegoaren bidez egin ahal da.

Alkateak gaineratu du lanpostuaren ezaugarriei dagokienez, Erroko eskolako garbiketa lanak ere egin beharko direnez, lanaldia handitu behar dela, 11,5 orduetik 16 orduetara igoz.

Z.A.L. lanpostu berriari dagokionez, alkateak azaldu du bere taldeak uste duela beharrezkoa dela, eta egin beharreko lanen arabera proposatzen dituztela maila hori eta osagarri horiek, eta, izaera jarraigabeari dagokionez, martxotik azarora atera beharko litzatekeela, ez apiriletik azarora, hasieran proposatu zen bezala, eta, garbitzaile lanpostuaren kasuan bezala, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez, aldi baterako, ikusteko plaza hori beharrezkoa den eta izaera finko jarraigabea egokia den. Plantilla organikoan lanpostu finko jarraigabea sortuko da eta urte batez, edo bi edo hiru urtez, bhin-behineko lanpostu bat kontratatzeko deialdia onetsiko da lanpostu horretan aritzeko izangaien zerrenda osatuz. Hiru urtez pertsona bera baldin badago lanpostu horretan eta beharrezkoa dela ikusten bada, oposizio-lehiaketa bidez bete daiteke edo agian lanpostuan dagoen pertsonak epaitegira jo dezake finko egitea eskatzeko.

Hiru urte horien bitartean lanpostua beharrezkoa ez dela ikusiko balitz, amortizatu beharko litzateke plantilla organikoa aldatuz eta lanpostua kenduz.

Remiro zinegotziak galdetu du ea gaur plantilla organikoa eta deialdien oinarriak onetsi behar diren, eta idazkariak erantzun dio ezetz, plantilla organikoa besterik ez, oinarriak alkatearen eskumena baitira. Garralda alkateak hitza hartu du eta esan du bere eskumena baldin bada ere batzorde bat egingo dela oinarriak aurkezteko eta udalkideekin adosteko. Ekisoain zinegotziak esan du gai hori jorratu nahi duela, izan ere, bere taldea ados dago plaza ateratzearekin; are gehiago, uste du urte osorako izan behar duela, eta ez izaera jarraigabekoa, bere taldearen proposamena izan baita denbora luzez, eta uste du deialdiaren oinarriak denen artean landu behar direla plazaren ezaugarriak eta merezimenduak adosteko, horien artean euskara Batzordea asteartean, hilak 21, 17:00etan egitea erabaki da.

Remiro zinegotziak adierazi du abstenituko dela uste baitu alde zuzenetik batzordea egin behar izan zela hortaz hitz egiteko, eta Nuño eta Ekisoain zinegotziek ere gauza

bera uste dutela diote, nahiz eta alde bozkatuko duten lanpostua ateratzea nahi dutelako.

Aldeko sei botoz eta abstentzio batez (Remiro) erabaki da 2021eko plantilla organikoa onartzea, Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legearen 235 artikuluko dioena betetzeko.

Eranskina.

2021eko PLANTILA ORGANIKOA

1.-Funtzionarioak:

Lanpostua:

1.1 Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-lehiaketa murriztua (barne igoera). Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %15. Lanpostuko osagarria %35,77. Lanaldi osoa. Lanaldiaren luzapen osagarria %10. Gida baimen mota: B.

- Funtzionarioen izen-zerrenda

Z.A.L.: Xabier Cia Urrutia.

2.- Langile finkoak.

2.1-Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %30,20. Lanaldiaren luzapen osagarria %10. Mailako osagarri iragankorra: %7,91. Lanaldia: %71,44.

2.2.- Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %30,20. Lanaldiaren luzapen osagarria %10. Mailako osagarri iragankorra: %7,91. Lanaldia: %71,44.

2.3.- Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: Mailako osagarria %15. Lanpostuko osagarria %8,77, Lanaldia: %43,63-16 ordu astean.

2.4-Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1.- Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Hutsik. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %15, Lanaldia: %100. Araubide Juridikoa. Lan araubide finko jarraigabea.

(Arau osagarriak: lanpostuak izaera jarraigabea dauka eta epealdia apiriletik abendura izanen da, eta egin beharreko lanak mendiaren garbiketa, bazkalekuen kontrola eta zerbitzu anitzetako langile gisa zerbitzuan egon daitezkeen bestelako beharren araberako lanak. Euskara maila: B2).

- Lan kontratudun finkoen izen-zerrenda.

Administrari laguntzailea Ana Isabel Erneta Erro.

Administrari laguntzailea María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu Anitzetako Langilea. Hutsik.

3.- Orreaga eta Erroibarko Udalekin bateratutako zerbitzuak.

Kargua: Idazkaria. Plaza kopurua: 1 Sarbidea: Plaza kopurua: 1 Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila A. Lanpostuaren osagarriak. %40, Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa. Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda: Ezcurra Irure, M^a Soledad. Bitarteko idazkaria. Egoera: Jardunean.

5.- IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEN EBAZPENA BERRESTEA.

Ikasteko diru-laguntzei dagokienez, honako zerrenda onetsi da aldeko sei botoz eta abstentzio batez, Remiro zinegotziarena, uste baitu batzordeak deitutako modua eta epeak ez direla egokiak izan, berak ezin izan zuelako parte hartu.

2020/2021 IKASTURTEKO ZERRENDAK

DIRUZ-LAGUNDUAK IZAN DIREN IKASLEEN ZERRENDA

HAUR HEZKUNTZA 1.2.3. (KUOTA 61,10 €)

- IRATI MURILLO OROZ
- OLAIA PATERNAIN AROSTEGUI
- LIZAR REDIN DEL RIO
- UNAX GOÑI URTASUN
- MARCO ECHAMENDI SAMPEDRO
- AROA MURILLO OROZ
- LUR PRIETO DE LA PARTE
- ANNE PATERNAIN AROSTEGUI
- IXONE NOAIN BIURRARENA
- LLUMA JAUREGUI MARTINEZ
- SAIOA VILLANUEVA BEAUMONT
- OIER SOMOVILLA TORREA

LEHEN HEZKUNTZA 1.-2.-3.-4.-5.-6. (KUOTA 120,20 €)

1º

- IZAI URRUTIA OROZ
- JUNE EKISOAIN GOIENA
- MANEX VILLANUEVA PARREÑO
- IKER ITULAIN PATERNAIN
- MARIO SOMOVILLA HERRERA
- MAIOA URIZ GOMEZ

2º

- JON ERRO AMOEDO
- MIKEL ECHAMENDI SAMPEDRO
- EKAITZ SOMOVILLA TORREA
- IUNAI JAUREGI UBEDA

3º

- HODEI EIZMENDI ZUBILLAGA
- MAITE LARRAINZAR FAGOAGA
- HEGOI AUBAN REY
- ION NOAIN BIURRARENA
- IZAI CUBILLO VILLANUEVA
- PEIO CARBALLO LARRAÑETA
- UXUE ERRO GARRALDA
- IRUNE ETXEBERRIA REDIN
- NEREA AINCOBURU JIMENEZ

4º

- LEIRE IRIARTE BIURRARENA
- MARTXEL ZIGANDA GARRALDA
- MARTINA ZALBA PEREZ
- ARITZ ZALBA PEREZ
- ENEKO EQUISOAIN REMIRO
- ZERUA PRIETO DE LA PARTE

5º

- KARTU ZALBA PEREZ
- OIER AUBAN REY
- LUKEN MORENO RAMOS
- MAREN ECIOLAZA BAZTAN
- ENARA ZIA MURILLO
- AITZIBER HUALDE CALVO
- EIDUR EKISOAIN GOIENA

6º

- XUBAN LARRAINZAR FAGOAGA
- MARKEL SOMOVILLA HERRERA
- XABIER IRIARTE BIURRARENA
- NAHIA ETXEBERRIA REDIN

- ARAITZ ZIGANDA GARRALDA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZIKETA 1. ETA 2. ZIKLOAK (120,20 €)

- 1º
- OIER EQUISOAIN REMIRO
- GORETTI ERRO AMOEDO
- IDOIA CARBALLO LARRAÑETA
- AFRIKA AYESA SALCEDO
- MIKEL URRUTIA OROZ
- BELATZ ZALBA ELIA
- OIHAN ZALBA ELIA
- MANES AINCIBURU JIMENEZ
- MARTIN MURILLO ZORROZA

- 2º
- UNAX ARGAIN RODRIGUEZ
- ARITZA ZALBA ARIZMENDI
- JUNE VIDAURRETA TORREA
- GARBIÑE ETXEBERRIA REDIN
- JULEN ECIOLAZA BAZTAN
- OLATZ ERRO ERBURU
- NAROA ECIOLAZA ANCHO
- MILAN MOL BARTOLOME
- JUNE ZALBA PEREZ
- MAIORGA URBELZ GASTEARENA
- MITXEL ERRO GARRALDA

- 3º
- JAIONE EQUISOAIN REMIRO
- UNAI KURCZAK VILLANUEVA
- HELENE ARGAIN IRIARTE
- ANDREA URRUTIA OROZ
- AMAIA HUALDE CALVO
- KATIXA AGORRETA ZABALZA
- AIMAR ERRO GARRALDA
- OIER ARANGUREN GOÑI

- IRAIA ZIAURRITZ VILLALBA
- 4º
- DIEGO MURILLO ZORROZA
- IONE ERRO GARCIA
- NAIA VIDAURRETA TORREA
-

LOGSE Batxillerra, Gradu Ertaineko Formakuntza Zikloak (L.H. Bigarren Maila), Goi Mailako Formakuntza Zikloak:

- BATXILLERRA, ZUBI-IKASTAROA:
-
- SANTIAGO HUALDE ECIOLAZA, 601,01€
- ALMUDENA ZALBA HINCAPIE, 601,01 €
- JOSE MIGUEL ZALBA HINCAPIE, 300,51€
-
- GRADU ERTAINAK ETA GOI-GRADUAK
-
- OIER ERRO ECIOLAZA, 601,01 €
- IÑIGO AYESA SALCEDO, 601,01€
- MAIDER ARDANAZ DUFUR, 601,01€
- URKO ARGAIN IRIARTE, 601,01€
- IÑAKI GARRALDA CELAY, 601,01€
- ANA RODRIGUEZ LOPEZ DE URALDE, 601,01€
- IDAIRA ARGAIN RODRIGUEZ, 450,76€
- ADRIAN AYESA SALCEDO, 601,01€
- IRATI AINCIBURU VILLANUEVA, 601,01€.
- MAITE ARMENDARIZ ORDOÑEZ, 450,76€
- JOSEBA ARMENDARIZ ORDOÑEZ, 150,25€.
- PEIO ARMENDARIZ ORDOÑEZ, 601,01€

EUSKARA IKASKETAK:

- CARLOS CARBALLO ERBURU, 235€
- SONIA IRIARTE GIL, 202€
- ESTIBALIZ PATERNAIN ESPINAL, 40€
- FRANCISCO BERDEJO ARCEIZ, 158,50 €
- JARA DE LA PARTE GONZALEZ, 247,50€

- RAUL SALON CHIC, 158,50€,
- ITZIAR SARAGÜETA RECA, 32,72€
- ANA MARI ITURRI ECIOLZA 235€,
- IRENE MORENO RAMOS, 235€
- BEATRIZ OCTAVIO MARTINICORENA, 235 €
- MARTA BAZTAN ZURBANO, 158,50 €
- RUBEN SALON CHIC, 158,50 €

UNIBERTSITATEKO IKASKETAK:

KARRERAK:

EDURNE GARRALDA ZORROZA.....	992,00€
SANDRA MURILLO ZORROZA.....	992,00€
EKHIÑE OROZ TORREA.....	992,00€
LEIRE IRIBARREN BIDAURRETA.....	1.124,04€
XABIER GARALDA CELAY.....	992,00€
JOSEBA ERRO ECIOLAZA.....	992,00€
XANTI ECIOLAZA ANCHO.....	892,62€
KOLDO IRIBARREN BIDAURRETA.....	992,00€
MAITE CALVO CASTERA	809,97€
IRATI SARAGÜETA MARTINEZ	992,00€

6.- 2021/2022KO ABELTZAINZA AZPIEGITURETAKO PROIEKTUAREN ONESPENA BERRESTEA

Alkateak hartu du hitza, eta abeltzainekin izandako bileraren eta Basarteak prestatutako memoriaren berri eman du. Bertan, abeltzainekin adostutako jarduerak eta hark emandako ñabarduraren bat sartu ziren, baita harri-lubeta bat ere patxakoak dauden bihurtunean. Ondoren, batzordea egin zen, eta, laguntzak eskatzeko epea azaroaren amaieran bukatzen zenez, memoriarekin batera aurkeztu zen eskabidea, ehun eta zortzi mila euro inguruko aurrekontuarekin, eta ikusiko da azkenean proiektuan jasotako guztia egin daitekeen. Nuño zinegotziak hitza hartu du eta esan du zegoen zalantza eta Basarteak kontsulta egin behar zuela horri buruz bazela dena ez egitea posible den. Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza eta esan du hori frogatu zela eta %30a gainditu ezean posible dela.

Remiro zinegotziak berriro abstenituko da ezin izan zuelako batzordean parte hartu, denbora tarte gutxirekin deitu baitzen eta talde guztiak bertan egoteko data eta ordutegia adostu ez baitziren. Ekisoain zinegotziak ere uste du denbora gutxi eman zela

antolatu ahal izateko. Gil zinegotziak dio premia zegoela deialdian eskaera aurkezteko epea azaroaren 30ean bukatzen baitzen.

Eciolaza zinegotziak hartu du hitza, eta abeltzainekin 13:30ean bildu zirela adierazi du. Bilera horretarako deituta zeuden, baina itxierak eta egin beharrekoak ezagutzen ez zituztenez, bere taldea lehenago geratu zen eta Nuño zinegotziari deitu zion, bertan geratu zirela jakinarazteko. Bezperan erabaki zuten hori. Nuño zinegotziak erantzun du jakinda berari ere gai horiek interesatzen zaizkiola, bezperan deitu ahal ziotela esateko eta bisita egitera joan ahal izateko. Eciolaza zinegotziak gaineratu du memoria aurkeztu zenetik deiru-laguntzen eskaera aurkeztu ahal zen arte denbora tarte txikia zegoela eta tartean batzordea deitu zela eta erabaki zenez batzordeak asteazkenetan egin behar direla, ba horrela egin zen. Remiro zinegotziak berriro dio alkateak batzordeak nahi duen moduan eta nahi dituenak deitu ahal dituela, baina deitzeko duen moduak ez duela bilatzen ez adostea ezta udalkideak batzordeetan parte hartzea.

Aldeko sei botoz eta abstentzio batez (Remiro and.) hau onartu da:

1º.- 1.- 6810001 kontu sailari eta 2021eko eta 2022ko aurrekontuei lotutako gastua onartzea.

2.- Proiektua prestatzea eta obra zuzendaritza Basarteari adjudikatzeko ebazpena berrestea, guztira 9.817,93 euroko kostua du.

3.- 2021-2022 Basogintzako jarduketan deialdira aurkeztutako proiektuaren onarpena berrestea; guztira, 98.179,30 euroko kostua du.

7.- PAULA AZCONA CERDANEK ERROKO 4 POLIGONOKO 939 A LURZATIAN SUSTATU DUEN XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONESTEA.

Garralda alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du ezen, 2021eko uztailaren 28ko 134 zenbakiko alkatetza-ebazpenaren bidez hasierako onespina emanda, Paula Azcona Cerdan andreak sustatutako xehetasun-azterlana, Erroko 4. poligonoko 939 A lurzatiari eragiten diona, partzelan etorkizunean eraikitze baldintzak ezartze aldera, eta jendaurrean ikusgai egon ondoren, 2019ko martxoaren 21eko 55 zenbakiko NAO on argitaratu ondoren, lege ezarritako epean ez dela alegaziorik aurkeztu, eta, hortaz, onartu beharko litzateke.

Hortaz, erabaki da aho batez:

1.- Behin betiko onestea Paula Azcona Cerdan andreak sustatutako xehetasun-azterlana, Erroko 4. poligonoko 939 A lurzatiari eragiten diona.

2.- Erabaki hau Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari igortzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Foru Dekretu Legegintzailearen 74. Artikulua garatzen duen 79. Artikuluari jarraikiz.

8.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA ONESTEA (2021-2023)

Garralda alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du euskara teknikariak plangintza aurkeztu duela udalerrian euskara sustatzeko eta onartzea proposatu du.

Remiro zinegotziak hartu du hitza, eta horri buruzko zalantza administratiboa azaldu du. Plan hori teknikariak idazten du, udaletako ordezkariekin batera; hor gauzatzen da plana, eta osoko bilkurak egin behar duena da izapide hutsa; izan ere, Udaleko ordezkariak landu badu eta ados badago, ez luke inolako zentzurik ez onartzea. Idazkariak erantzun du hala dela, nahiz eta bileran bertan ñabardurak egin daitezkeen. Ekisoain zinegotziak hartu du hitza eta azpimarratu nahi du plantilla organikoan lanpostuek izan behar dituzten hizkuntza-eskakizunak ezartzeko interesa, hori egin behar da, baina ez da definitzen, Nafarroako Gobernuak hala ezartzen baitu, ez da atzeraeraginezko izaera, kontratazio berrietarako baizik.

Remiro zinegotziak adierazi du agiriak elkarteak aipatzen dituenean ez direla herrietako elkarteak aipatzen, eta horrek harritu egin dituela, erreferentzia sozialtzat jotzen dituelako eta planean kontuan ez hartzea arraroa iruditzen zaiolako. Ekisoain zinegotziak eta ordezkariak oharra hartu du; kontuan hartuko du, eta ohar hori helaraziko du. Era berean, Udalak parte hartzen duen mankomunitateak plan horrekin lotuta dauden galdetu du. Garralda alkateak erantzun du ez lukeela zentzurik, mankomunitateak osatzen dituzten udalerriak ez datozelako bat plan honekin lotuta dauden udalerriekin.

Azkenik Remiro zinegotziak galdetu du hizkuntza-protokoloak zeri dagokion eta ez zaio erantzun.

Aho batez erabaki da Euskararen erabilera normalizatzeko Plana (2021-2023) onartzea eta euskara teknikariari erabakiaren berri ematea.

9- ERROIBARKO EDATEKO URAREN HORNIDURA-ZERBITZUAREN ETA UR BELTZEN SANEAMENDU-SAREAREN KUDEAKETA KONTRATATZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA

Idazkariak hitza hartu du eta esan du udalkideei igorri zitzaizela kontratazio mahaiaren akta Eunate Ingenieritzak egindako txostenarekin batera, bai eta lortutako puntuazioak ere. Atariaren eta Plena plataformaren bidez, Tabar S.L.k eskaintza bakarra aurkeztu zuen, eta, baldintza-agiriarekin bat etorritik, kontratazio-mahaiak proposatu du Tabar S.L.ri esleitzea Erroibarko udalaren edateko uraren hornidura-zerbitzuaren eta ur beltzen saneamendu-sarearen kudeaketa.

Ekisoain zinegotziak hartu du hitza, eta galdetu du ea zer gertatu zen kontagailuen irakurketa egiteko betebeharra jasotzen zuen baldintza-pleguaren puntuari buruz, ea kendu den ala ez, eta idazkariak erantzun du gai hori baldintza-agiritik kendu zela, aguazilarekin hitz egin ondoren ondorioztatu zelako lan hori ezin zuela egin bizilagunak

ezagutzen ez dituen enpresa batek, ezin baitie jakinarazi kontagailuak arazorik duen ala ez eta abar.

Aho batez erabaki da Tabar S.L. enpresari hirurogeita zortzi mila eta bostehun eurotan (68.500,00 €, BEZik gabe) esleitzea Erroibarko edateko uraren hornidura-zerbitzuaren eta ur beltzen saneamendu-sarearen kudeaketa.

10.- GESERLOCAL S.L. ERROIBARKO UDALAREN ERAKUNDE INSTRUMENTALA DEKLARATZEA ETA GESERLOCAL S.L. MERKATARITZA-SOZIETATEARI PREMIAMENDU-BIDEAN ZERGA-KUDEAKETARAKO LAGUNTZA-ZERBITZUAK EMATEKO ENKARGUA EMATEA

Idazkariak hartu du hitza, eta jakinarazi du Geserlocal S.L. merkataritza-sozietate bat dela, NUKFk eta Zangozako, Erriberriko eta Lizarrako udalek sortua eta eraturia, Nafarroako toki entitateei nahitaezko diru-bilketako zerbitzua emateko. Geserlocal enpresak zerbitzu horiek eman izan dizkie Nafarroako toki entitateei, kontratazio araudiaren arabera hartutako esleipen akordioen arabera.

Kontratazioari buruz indarrean dagoen araudia eta botere esleiztaileei eta erakunde instrumentalei buruz dauden aurreikuspenak kontuan hartuta, bereziki Kontratazio Publikoari buruzko 24/2014 Zuzentaraua eta Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, sozietate horri erakunde instrumental izaera esleitzea posibletzat jotzen da, kapitalean zuzenean parte hartzen duten udalei dagokienez ez ezik, NUKFko toki-erakundeei dagokienez, sozietatearen titular nagusia den aldetik.

Aurrekoa kontuan hartuta, NUKFren Batzorde Betearazleak irailaren 14ko bilkuran erabaki zuen Geserlocal entitate instrumental izendatzea, hala erabakitzen duten toki entitateei dagokienez. Horregatik, eta kontratazioari buruz indarrean dagoen araudia betetzeko, Geserlocal S.L. Erroibarko Udalaren erakunde instrumental izendatzea proposatzen da.

Gaiaren berri izan ondoren, aho batez erabaki da:

1. Geserlocal S.L. Erroibarko Udalaren erakunde instrumental izendatzea, aipatutako Foru Legearen 8. Artikuluan ezarritakoa betetzeko.
2. Enkarguak egin daitezkeen eremua nahitaezko diru-bilketari, isunen kudeaketari eta kontabilitateari dagozkien prestazioak direla deklaratzeko, bai eta sozietatearen xedearekin bat datozen beste batzuk ere.
3. Erabaki hau NUKFari eta Geserlocali jakinaraztea eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.

Modu berean erabaki da Geserlocal S.L. Merkataritza-Sozietateari premiamendu bidez zergak kudeatzeko laguntza-zerbitzuak emateko enkargua ematea.

11.- ELURRA KENTZEKO LANEN ADJUDIKAZIOAREN BALDINTZAK ONARTZEA

Garralda alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du abenduaren 31n amaitzen dela elurretako lanak esleitzeko kontratuaren epea, eta, beraz, berriro atera behar dela deialdia. Aurrekoaren antzeko pleguak prestatu dira, aseguruia izan dezaten eta ordutegien aferari garrantzia emanez, lanari goizeko 8:00etan ekingo zaio. Hala ere, orduko kostua aldatu da, 50 eurotik 60 eurora pasatuta; izan ere, beste udal batzuetan ordaintzen dena eta lanaren zailtasuna ikusita, zerbitzuaren orduko kostua handitzea beharrezkoa zela ulertu da.

Ekisoain zinegotziak hartu du hitza, eta uste du eskaintzak aurkezteko epea oso estua dela jendeak jakin eta aurkeztu ahal izateko. Era berean, atentzioa eman dio taldeka aurkeztu behar izateak, eta diskriminatzaile samarra iruditu zaio banaka aurkeztu nahi duenarentzat, eta lau plaza bereizita ateratzeko aukera baloratu beharko litzatekeela uste du. Garralda alkateak erantzun du horrela egin ohi dela matxurak gertatzen badira eta batek ezin badu lana egin beste batek egin beharko duelako lan hori eta beraien artean konpontzea errazago baita, modu horretan lana egingen dela bermatuz. Nuño zinegotziak erantzun du lan egitera behartuta baldin badaude berdin dela taldea izatea ala ez, egin beharko dutelako, eta ez dute abantailarik ikusten eta bai berriz banaka aurkeztu nahi duenarentzako desabantailak. Beste aldetik proposatu nahi du ez izatea urtarrilatik urtarrilera, baizik eta urritik ekainera, eta laur urterako izatea, ekainetik ekainera. Orain ekaina arte luza daiteke eta ekainean laur urte eta erdirako atera, ekainetik ekainera. Dena den ez daude ados eskaintzak aurkezteko emandako epearekin.

Aitzitik, Eziolaza zinegotziak uste du askoz ere hobeki dela taldeka aurkeztea, beraien artean konpondu behar dutelako eta ez Udaletik, gehienbat gaizki moldatzen badira. Aurizberrin Erron baino askoz ere elur gehiago egiten du eta agoazilak lana antolatzen du eta haiekin adosten du. Orain arte adjudikatu ahal izan da baina baliteke hutsik gelditzea.

Remiro zinegotziak adierazi du bere botoa kontrakoa izango dela, dokumentuak argi ez dauden gauza asko dituela uste duelako, eta hasiera batean onetsi ahal dela eta gero batzordean aztertu. Alkateak erantzun du lehenago atera behar zutela, baina, nolana ere, ezin dela itxaron, udara arte luza daitekeela, eta gero berriro atera. Beraz, dokumentu hori onartzea proposatu dute, baina hiru urte eta erdiko edo lau urte eta erdiko epearekin, udara arte amaitzeko, Nuño zinegotziak proposatu duen bezala.

Remiro zinegotziak proposatu du kontratua ekaina arte ateratzea eta bitartean plegua lantzea eta udan berriro ateratzea lau urterako, Nuño zinegotziak proposatu bezala. Idazkariak galdetu du ea uste duten urte erdirako bakarrik lana hartzeko prest egongo den norbait, horrela ez balitz balitekeelako ez egotea inor prest, eta erantzun dute ez dagoela argi ez baitago jende nahikorik.

Nuño zinegotziak hitza hartu du eta esan du argudioetan ez duela ikusten zergatik den hobe taldeka aurkeztea, gauza bat eta kontrakoa argudiatzen baitira. Eciolaza zinegotziak berriro dio hobe dela talde bat izatea eta ez bakoitza bere aldetik aritzea. Nuño zinegotziak galdetu du ibilbideak beraien artean adosten dituzten edo norik egiten duen lan hori, eta alkateak dio adjudikaziodunen artean banatzen dituztela, agoazilak zuzenduta. Udalak adjudikatzen duenez, lanaren antolaketan parte hartzen du. Agoazilak orduak ematen ditu deitzen eta koordinatzen, eta Nuño, Ekisoain eta Remiro zinegotziek diote hori horrela baldin bada, berdin dela talde bat diren ala ez. Remiro zinegotziak galdetu du ea kontzejuak kontuan hartzen diren, baita horien buruek diotena ere, zerbait kobratzen bazaie zerbait esateko izango dutelako, eta alkateak dio %20 kobratzen zaiela eta agoazilak kontzejuak egindako eskaerak eta oharpenak kontuan hartzen dituela. Dena den ez dago arazorik banaka adjudikatzeko. Alkateak proposatu du dokumentua bozkatzea iraupena hiru urte eta erdira aldatuz, horrela kontratua maiatzaren 31n bukatuz eta aurkeztu ahal izatea banaka edo taldeka. Nuño eta Ekisoain zinegotziek diote ez dutela dokumentua onartuko eskaintzak aurkezteko epea motza baita eta Remiro zinegotziak ez du onartuko arrazoi berberarengatik baita dokumentuaren edukiarengatik ere. Gaia eztabaidatu ondoren erabaki da aldeko lau botoz (Gil, Eciolaza, Vidaurreta eta Garralda) eta aurkako hiru botoz, (Nuño, Ekisoain eta Remiro) Garralda alkateak proposatu duen elurra garbitzeko lanak adjudikatzeko baldintza plegua onartzea.

12.- ELUTSEDER HILERRIEN ESKAERA

Bidaurreta zinegotziak hitza hartu du eta azaldu du Udalean sartu zenean eta gaiaren berri izan zuenean zerbait egiten hasi zela baina arrazoi pertsonalak zirela eta ez zuela aurrera egin. Orain aurkeztu dutenez berriro eskaera, uste du onar daitekeela eta gure web orrian turismo gaiak sartuz joatea, honekin hasiz. Nuño zinegotziak galdetu du eta ez zaiola argi gelditzen proposatzen dena orri berri bat den edo udalarenean sartzea. Elutsederrek bere orri propioa eskatu du baina gobernu taldeak proposatzen duena da Udalaren orrian sartzea. Animsarekin hitz egin da Udalaren web orria berritzeko aurrekontua aurkez dezan, oraingoa nahiko zaharkitua dagoelako. Eta web orri horretan QRren afera sar daitekeen aztertuko da.

Marmaun andreari hitza eman zaio hasierako proposamenaren ordezkari delako, hura azal dezan. Marmaun andreak hitza hartu du eta azaldu du beraiek eskatzen dutena dela Udalak laguntzea ekonomikoki Elutseder elkarteari bere orri propioa izan dezan eta horretan bere proiektua sartzeko eta ez Udalaren orriaren bidez, baizik eta zerbait independentea.

Idazkariak hitza hartu du eta galdetu du hilerrien proiektuaren gaiarekin benetan diruz laguntzen dena elkarte baten web orria den, kasu honetan Elutseder, horrela balitz

egoera berri baten aurrean gaudela uste baitu, Udalarentzako korapilatsua, ibarreko elkarte guztiek eskatu ahalko baitiote Udalari bere web orria finantzatzea.

Remiro zinegotziak uste du gaia batzordean landu behar dela, elkarteek sortzen duten lanari etekina nola atera ahal zaion aztertzeke eta zer nolako elkarlana egin daitekeen haiekin, ez bakarrik ekonomikoki baizik eta komunikazio eta mantentzeari dagokionez, hitzarmen bat bilatzea, bi aldeentzako onuragarria, batek ideiak eta lana jartzen du eta besteak alde ekonomikoa.

Proposamena eztabaidatuta erabaki da aldeko sei botoz eta abstentzio batez (Garralda) gaia mahai gainean uztea aurkeztutako eskaera hobeki aztertzeke.

Remiro zinegotziak, Udalaren web orriari dagokionez, proposatu du alde zurretik lantzea zer nolako orria nahi den eta ez uztea dena teknikarien esku, eta eskatzen du gaia lantzeko gunea sortzea. Proposatu du batzordea egitea urtarrilaren 18an, asteartean, 17:00etan.

13.- BESTERIK

Alkateak honako informazioa eman du:

Orondrizko zolaketa lanak

Jakinarazi da Orondrizko lanak Lakita S.A.ri adjudikatu zaizkiola 39.530,00 eurotan gehi BEZa.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Medikuaren kontsultategiko eta aldageletako lanak Bizkarreta-Gerendiainen

Jakinarazi da Bizkarreta-Gerendiaingo Kontzejuari 14.000 euro aurreratu behar izan zaizkiola kontsultategiko eta aldageletako obren zati bat ordaindu ahal izateko, Rural Kutxari bi obren ordainketari aurre egiteko eskatutako maileguaren emakida atzeratu egin delako.

Udalbatza jakitun da.

Udal ibilgailua

Jakinarazi da udal ibilgailua hondatu dela eta matxura konpontzea merezi duen ala ez jakiteko tasazioa egingo dela. Dena den beste ibilgailu bat erosteko eskaintzak begiratuko dira.

Udalbatza jakitun da.

Filomena eraunsiaren diru-laguntzak

Jakinarazi da dokumentazio guztia aurkeztu dela 2021eko urtarrilean izandako Filomena ekaitzaren ondoriozko laguntzak eskatzeko. Une hartan, Nafarroa hondamendi eremu izendatu zuten, besteak beste, eta Udalak formulario batzuk bete zituen jasandako kalteen berri emateko. Horri esker, Estatuak Filomena ekaitza dela-eta atera dituen laguntzak eskuratu ahal izan dira.

Udalbatza jakitun da.

Nafarroako Toki Ogasunen Fondoaren banaketa berriari buruzko bilera

Nafarroako Gobernuarekin eta Udalekin izandako bileraren berri eman da, Nafarroako Toki Ogasunen Funttsaren banaketa berriari eta Toki Azpiegituren Plan berriari buruzko informazioa emateko. Lehenengoari dagokionez, Iruñeari hiriburutza kendu zaio, eta landa-eremuetarako diru gehiago banatu da, eta horrek, gure kasuan, orain arte jasotzen zena baino 48.000 euro gehiago jasotzea ekarriko du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Erroko ikastetxea berritzeko Hezkuntza Departamentuko diru-laguntzak

Jakinarazi da Hezkuntza Departamentuaren jakinarazpen bat jaso dela, eta, horren bidez, laguntzak eman zaizkiela Erroko eskolan egin ziren eta hasiera batean diruz lagundu ez ziren gainerako obrei, hala nola barneko tarima ordezkatzeko, suteen aurkako babesak, sabai faltsua eta argiztapena.

Udalbatza jakitun da.

Barra erauntsia

Barra erauntsiak eragindako arazoak berri eman da, eta Erroibarko udalerrira erauntsiak eragindako eta hondamendi eremu izendatutako 74 udalerriren zerrendan sartu dela jakinarazi da. Babes Zibilaria jakinaraziko zaizkio, lehenik eta behin, hiriguneetan eragindako kalteak eta, gero, baso-pistetan eta abarretan eragindako kalteak. Informazioa kontzejuei ere helaraziko zaie, haiek ere kalteen berri eman dezaten.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Urrobi Partzuergoa. Bilera.

Jakinarazi da Urrobi Partzuergoak bilera egin duela eta kitatzeko zeuden ordainketei aurre egiteko kontu korrontea desblokeatu dela. Orain Erroibarko Udala izango da haren buru. Eta orain batzorde betearazlearen bilera deitu behar da, Partzuergoa likidatzea eta bi erakundeen arteko lotura-formula berriren bat bilatzea helburu duena, beharrezkoa izanez gero. Batzar Nagusiak berretsi beharko ditu bi erakundeen arteko akordioak.

Udalbatza jakitun da.

Zuntz optikoa Sorogainen-Pirinioko Plana.

Jakinarazi da Pirinioko Planean aurkeztutako zuntz optikoaren proiektua Nafarroako 2022ko aurrekontuetan sartuko dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Nuño zinegotziak honako informazioa eman du:

Musika Eskolaren bilera.

Jakinarazi da musika eskolak bilera egin zuela, bertan ez zela deus ere aipagarririk esan eta kontuak aurkeztu zirela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Orreaga Fundazioko bilera

Bi metro inguruko eskultura bat egin nahi da Ibañetako gainean jartzeko, Orreagako gudua gogoratuz. Bilera horretara ez ziren bertaratu Luzaideko ordezkariak, eskultura jarri nahi den lursailaren jabeak baitira, eta, gainera, Orreagako alkateak jakinarazi zuenez, egin nahi den edozein jarduerak Vianako Printzearen baimena izan behar du. Iritzi desberdinak aipatu ziren, baina momentu horretan informazioa ematea besterik ez zen egin behar.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ekisoain zinegotziak honako informazioa eman du:

Telebista hartzeko Ariben izandako bilera

Ariben egindako bileraren berri eman da. Bilera horretara Aezkoa, Auritz, Luzaide, Erroibar eta Artzibar zeuden deituta, ETB3, Hamaika eta abarretako telebista-kaptazioaren gaia zela eta; izan ere, 2017an instalazio bat egin zen telebista horiek hartzeko ikusten ez zirelako. Instalazioa ongi funtzionatzen ez zuenez, irtenbidea emateko aurrekontu bat eskatu zen, eta beste kaptadore batzuk jartzeko 428,34 euro jarri behar ziren, baina estatuko aurrekontu orokorrak onartzearekin batera, kontu honetarako partida bat aurrekontuan sartu da; beraz, baliteke kopuru hori aldatzea. Garralda alkateak dio kanal bat gehiago jarri beharko litzatekeela eta instalazioak eguneratu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Remiroo zinegotziak honako informazioa eman du:

Agenda 21

Agenda 21ean udalaren ordezkari denez jakinarazi du Agenda 21 eta Agenda 30 delakoei buruz Osagabian egin behar zen bilera ez dela egin jende gutxi bertaratuko zela esan baitzuen eta aurrerago egingo dela. Gaia anitz landu behar da aurrera ateratzeko eta udalbatzak erabaki behar du horretan denbora eta indarrak jarri nahi dituen eskualderako agenda berria atera ahal izateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

14.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Alkateak dio eskaerak eta galderak idatziz erantzungo dituela, ez baita sobera ongi aditzen.

Remiro zinegotziak hitza hartu du eta honako galderak egin ditu:

Jaurerrien batzordea azaroaren 17an egin behar zela esan zen eta ez da egin, eta zergatia jakin nahi du. Erantzun zaio Oyaregui teknikariak ez duela deitu eta horregatik ez dela egin, berak deitu behar duelako. Idazkariak deituko dio jakiteko zergatik ez den egin eta noiz egingo den.

Ardaizko lurzatiek baterakuntzari buruz, duela urte batetik geldirik dagoen gaia, instantziaren kopia eskatu du baina ez dago, igorri zena e-maila izan baitzen eta ez zaiolako jarraipenik eman. Idazkariak hartu du hitza eta azaldu du Rebole teknikariarekin mintzatu dela eta zerbait bazekiela esan ziola eta txosten hauek daramatzan teknikariaren telefonoa eman diola; harekin ere mintzatu da eta esan dio gaiaren berri baduela baina ez dela deus ere egin eta 19 eta 20 poligonoetako ustiatzearen zerrenda igorriko duela gaiari berriro heltzeko. Osoko bilkura guztietan gaiaz galdetu du eta beti esan zaio ez dakitela gaia zertan den,

Pediatría zerbitzuaren ordutegiaren erantzunari dagokionez, azkeneko bilkuran esan zen hurrengoan hitz egingo zela eta argi utzi nahi du ez dela gai zerrendan sartu, alkateak dio ez dela oroitua.

Sorogaingo aterpeari dagokionez,

Modu berean, Sorogainekin jarraituz, Sorogaingo biltegiaz galdetu du, iraileko bilkuran alkateak esan baitzuen eskatu behar ziela garbi uztea erabili ahal izateko eta urriaren 2an erabiltzeko eskaera egin zela eta erabili behar zenean, ez zegoen erabilgarri; alkateak dio ez dakiela, berak eskatu ziela baino gero ez dakiela zer gertatu zen. Azkenik, Nasuvinsak egindako txostenari dagokionez, azkenean iritsi baita, noiz aztertuko den galdetu du eta alkateak erantzun du batzordean ikusiko dutela.

Loizuko Gizonari eta alkateak antolatu behar zuen erakusketari buruz eta horren inguruan egin nahi den interpretazio zentroaz jakin nahi du zer gertatzen den. Erakusketari dagokionez oraindik ez dela egingo erantzun du, badirudi interpretazio zentroarekin aurrera egingen dela baina ikerketa bukatu arte ezin da ezer gehiago egin.

Berogailuaren termostatoarekin zer gertatzen den galdetu du, zergatik ez den konpontzen, eta alkateak dio ez dakiela ezer.

Zahar etxeari dagokionez, galdetu du hari buruzko informazioa emateko bilera deitu den edo deituko den, Nuño zinegotziak behin baino gehiagotan galdetu baitu Udalak Amma Ibañetarekin duen harremanaz eta loturaz. Alkateak erantzun du baietz, deituko duela.

Hizkuntza inklusibo ez-sexistaren erabilerari buruz osoko bilkuran hartutako erabakiari dagokionez, udaleko langileentzako prestakuntza-ikastaroren bat antolatzea erabaki zen, eta ea antolatu den galdetu du.

Zalantza bat mahaigaineratu da, izan ere Udalaren langileek beren ordutegian Kintoko Mankomunitaterako lanean aritu diren orduen gastua Mankomunitateari jakinarazi zaio ordu horiek ordain ditzan, eta jakin nahi du alkateak Kintorako sartu dituen orduekin gauza bera egingo den, kontuan hartuta ordu horiek Udalarentzako egiten duen lanetik atera direla. Idazkariak erantzun du ezetz, alkateak egiten duen lanari gehitzen zaizkion orduak baitira.

Badago ebatzi gabe dagoen gai bat, Martinez oraindik zinegotzia zeneko bilkura batean berak mahai gainean jarri baitzuen Bildu taldeak etxebizitzaren suteei eta antzeko kasuei buruzkoa, eta galdetu du ea aurreikusi den batzorderik deitzea, eta alkateak dio ezetz. Bilkura berean mahaigaineratu zen BBE eta hura kudeatzeko plana lantzeko deia egingo den eta alkateak dio ez dela bilerarik egin. Bilkura horrekin jarraituta, aipatu zen beste gai bat harrobiekin eta horiei buruzko bilera bat deitzeko eskaerarekin du zerikusia, izan ere Magnarekin bilera egingo zela esan zen, alkateak dio dena geldirik dagoela eta Magnak ez duela oraindik proiekturik aurkeztu.

Ebatzi gabe dauden gai guztien errepassoa egin ondoren, galdetu nahi dio alkateari, eskumena baitu eta gaiez arduratzeko denbora ere, diru publikoarekin ordaindutako %33ko lanaldia baitu, hau guztion diruarekin, zergatik ez dituen gai horiek guztiak ebatzi. Era berean, galdetu nahi dizut zergatik ez dituzun ohiko bilkurak 2019ko uztailaren 4ko bilkuran adostu ziren egunetan deitzen, zergatik ez diren gaurko saioan sartu presio fiskala eta jaiegunen egutegia, eta zergatik izango ditugun abenduan bi bilkura, horietako bat Gabonetan, hiru hilabetez ohiko bilkurarik egin gabe egon ondoren. Alkateak erantzun du oraindik ez duela esan bilkura ohikoa edo berezia izango den, eta Remiro andreari galdetu dio ea uste duen alkatea denbora edo lanaldiaren % 33 galtzen ari dela, eta horrela bada, oso oker dagoela; izan ere, denbora hori baino askoz gehiago eskaintzen du, eta nahiko zaila da horrelako udal bat eramatea; nolana ere, bilkurak adostutako denboran egiten saiatuko da; bera ez da begira egon, badaude alkateak bakarrik konpondu ditzakeela uste diren gai asko eta hori ez da horrela ere. Zuri ere hainbat bileratara dei egin zaizu eta ez zara bertaratu, Urrobi partzuergokoa, Agenda 21ekoa edo bazkalekuena kasu. Egia da badaudela ebatzi gabeko gaiak baina uste dut nahikoa ongi daramadala udala.

Remiro zinegotziak erantzun du berak ez duela esan alkateak ez duela Udala ongi eramaten edo ez duela lanik egiten, bakarrik galdetu du zergatik ez diren egiteke dauden gaiak garaietan eta behar den moduan ebatzen.

Nuño zinegotziak hartu du hitza, eta 2022an bilkurak ezarritako denboran egiteko konpromisoa berretsi du, eta adostutako aldizkakotasunarekin egiten badira, seguruenik errazagoa izango da guztientzat.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 22:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.